

Disko berria kaleratu du Ermuko Sffera taldeak

2007an sortu zen Sffera taldea, baina berritasunak ekarri dizkio 2014ak: bi taldekide berri (Eneko eta Unai) eta *Mar de Niebla* diskoa. Datozen hilabeteotan, berau zabaltzen eta zuzenekoak eskaintzen arituko dira.

Hamaika abestik osatzen dute *Mar de Niebla* diskoa. Metal progresibo estilokoak dira, nahiz eta kanta bakoitzak bere ezau-garri eta estilo propioa duen. Gizarte-kritikari, introspektzioari eta kontu pertsonalei buruz hitz egiten dute, besteak beste. “Diskoa ona da, eta esperantzak ditugu”, diote kideek.

300 kopia salgai ipini dituzte, herriko hainbat tabernatan eros daitezkeenak: Txalaparta, Scorpio, Arizmendi, Infreñu eta Molokon. Eta dis-

koaren diseinua, Igor Mugerza ermuarrak egin du. Horrez gain, Bandcamp plataforman webgunea sortu dute (sffera.bandcamp.com), eta bertan diskoa entzuteko aukera dago. Nahi dutenek diruekarpena ere egin dezakete, abestiak deskargatzeko, “baina oraindik, behintzat, inork ez du ezer ordaindu”, argitu dute.

Zornotzako musika-lokal batean grabatuta dago *Mar de Niebla*, eta ordu asko eman dituzte zeregin horretan. “Gitarrekin 3 aste inguru ibili gara; ahotsekin, be-

rriz, hilabete inguru... Denbora behar da, behin eta berriro errepikatu...”, dio taldeko buru den Aitor Losadak.

Izan ere, egun, lau kide dituzte Sfferak: Aitor Losada (gitarra eta ahotsa), Unai Sánchez (gitarra) eta Eneko Bergaretxe (bateria) ermuarrak, eta Barakaldon bizi den Alberto Rodríguez venezuelarra (baxua). Sortu zenetik, aldaketa ugari egon da taldean, eta Aitor Losada da hasieratik dagoen kide bakarra. Unai eta Eneko, aldiz, aurten hasi dira, Abhagoht taldean jotzen zebiltzala.

Zuzenekoak

2007an abiatu zen Sffera, Apocalyptic taldeko bi taldekide ohiek bultzatuta. Urte berean maketa grabatu zu-



ten, eta hiru urte geroago lehen diskoa kaleratu zuten: *Arrastrado por la corriente*. Esperientzia txarra izan zuten disko horrekin. Asturiasko Santo Grial Produccione-sekin kaleratu zuten, ordainduta eta taldekideen hitzetan, 1.000 kopia egitera derriortu zituzten. “Eurek banatuko zituzten gero, baina ez zen ia ezer saldu. Gainera, saldutako diskoengatik, huskeria ematen ziguten guri”, azpimarratzen dute.

Orain badakite musikak hobbia izan behar duela, baina astindua eman nahi diote taldeari. Hori dela-eta, kontzertuak lotzen hasiko dira irailetik aurrera. “Herriko zenbait tabernatan jotzeko asmoa dugu, baina badakigu horretarako mugitu beharko dugula. Entseguetan zentratu gara, baina zerbait gehiago nahi badugu, gure burua ezagutzera eman behar dugu, tematu, txapa eman”.

Facebook-en ere orria dute, eta azkenaldian Venezuela eta Argentinako jarraitzaileen berri izan dute.

Dorleta Vidal



Iberikoetan
espezialistak

Mayte

Denda
berria

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

J. LUCAS
PINTURA EN GENERAL



630 22 51 36